

Atarikoa

LAKARRA, Joseba Andoni eta MANTEROLA, Julen
Euskaltzaindia-Euskararen Hiztegi Historiko-Etimologikoa (EHHE)

2009ko Euskaltzaindiaren Barne Jardunaldietan egitasmo bezala onartu eta hurrengo urtearekin hasi eta ia hamar urtez garatutako EHHEren lehen prestaketa (EHHE-200) 2019ko udaberriarekin amaitu zen, inprimategiko ia urte eta erdiko lanaren ondoren.

2019ko uztailearen 4ko goizean, bezperan euskal lurralde guztietako agintari politikoeekin eta hainbat kazetariren aitzinean eginiko aurkezpen ofizialaren biharamunean, EHHEren Aurkezpen Jardunaldia egin zen Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan. Jardunaldi honetan, EHHEren oinarri, ezaugarri eta helburuak aurkezteaz landa, inguruko eta haragoko tradizioetako hiztegi historiko-etimologikoen testuingurua bistaratu zen.

Aurkezpen jardunaldi honetaz gain, aurkezpen xumeago bat egin zen Baionako UPPAren campusean, 2019ko urriaren 8an, Joseba Lakarraren eta Julen Manterolaren aurkezpen hitzaldi banarekin. Hasiera eta amaiera hitzak, hurrenez hurren, euskaltzainburuak eta euskaltzainburordeak egin zituzten.

Euskera aldizkariaren ale honetarako, Bilbon uztailean eginiko ahozko aurkezpenen aitzakian, artikulua bana idaztea eskatu zaie aurkezpen jardunaldi hartako hizlariei, ordukoak hizpide hartuta eta, beharrezko iritziz gero, zabaldua. Bost artikulua dakartzagu hona, beraz:

- a) José Antonio Pascualek “El *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* de Joseba A. Lakarra, Julen Manterola, Iñaki Segurola visto por un his-

panista” izeneko artikulua dakarkigu. EHHEn gaineko bere irakurketaren berri ematen digu bertan, etimologiagintzari buruzko gogoeta zenbait eginez eta nabarmenduz zer dakarkien hispaniar ikasketa etimologikoei gure hiztegiak.

- b) Reina Bastardasek “Préstamos latino-románicos sucesivos en vasco” izenburuko artikulua ondu du. Erromanista batek euskal datuetara egin lezakeen sarbidearen erakusgarri da artikulua hau: hizkuntza latino-erromantzeen eta euskararen arteko etengabeko harremanean, erakusten digu nola sartu den hitz latin-erromantze bera harreman horretako historiaren garai ezberdinetan.
- c) Joakin Gorrotxategik “Etimologia, filologia indoeuroparra eta euskara” izenburua dakarren artikulua eskaintzen digu. Hizkuntza isolatu baten etimologiagintzak dituen erronken berri ematen digu, aitzin-indoeuropearen berreraiketan dauden auzi batzuk aipatuz. Eta, era berean, datu filologikoak ongi erabiltzearen beharra, alderdi formalak bezala semantikoak ere berreraikitzearen garrantzia, erro teoria on baten onurak... gogoratzen dizkigu.
- d) Joseba Lakarrak, “Euskal ikerketa diakronikoak eta EHHErantzko bidea” lanean, EHHEn oinarri teorikoen berri ematen digu: Mitxele-naren eredutik harago, erro teoriaren oinarriak aurkezten dizkigu, eta hark ekarritako emaitzen berri ematen. Horren osagarri, etimologiagintzan garrantzitsu diren beste zenbait puntu ere aletzen ditu, hala nola gramatikalizazioa, hitz-familien eta motibazioaren garrantzia, enparauko tradizioetako paralelismoak, etab.
- e) Julen Manterolak “Euskaltzaindiaren *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* (EHHE-200): etorkizunari begirako aurkezpen bat” artikuluan EHHEn ezaugarri eta atal nagusiei gainbegiratu ematen die, eta etorkizuneko edizioetan egin daitezkeen moldaketan ildoak markatu.

Nabarmentzekoa da, era berean, izan dela EHHEn loturiko bestelako aurkezpenik, liburua argitaratu eta Bilbon aurkeztu baino lehenagorik. Horrela, Joseba Lakarrak eta Julen Manterolak, euskaltzain osoen aurreko

aldian aldikoez landa, zenbait kongresu internazionaletan eman dute EHHEren aurrerapenen berri, *Plazaberrin* iragarri bezala:

- a) Erroman, 2016ko uztailaren 20an, *XXVIII Congresso Internazionale di Linguistica e Filologia Romanza (CILFR 28)*-ren baitan: “El Diccionario Histórico-Etimológico Vasco y etimología románica: aportaciones formales, semánticas y documentales”.
- b) Helsinkin, 2017ko maiatzaren 17an, *Contextualizing historical lexicology conference* kongresuaren baitan: “Basque etymological studies: loanwords, roots and a new etymological dictionary”.
- c) San Antonion (Texas), 2017ko uztailaren 31n, *23rd International Congress of Historical Linguistics (ICHL 23)*-ren karietara: “The new Basque Historical-Etymological Dictionary: advancements on the reconstruction of the Basque lexicon”.
- d) Londresen, 2019ko martxoaren 3an, SOASEk antolaturiko *Recent Advances in Comparative Linguistic Reconstruction Workshop* lantegian, “The contribution of medieval data to the reconstruction of proto-Basque: lexicon and morphology”. Zeharka aipatzen zen hitzaldi horretan EHHE.

2019ko uztailleko jardunaldiek izan dute, gainera, bestelako ondoriorik, izan ere bertatik sortu baita erromanistekiko lankidetzaren aberatsa. Horren emaitza da Reina Bastardasekin batera Julen Manterolak Europa osoan eredugarri den *DÉRom*-en hirugarren liburukian argitaraturiko artikulua, “Pour un traitement digne du 21^e siècle des emprunts au protoroman du basque dans le DÉRom” izenburukoa. Eta, jardunaldiekin zerikusirik izan gabe baina ildo beretik, *Zeitschrift für romanische Philologie* aldizkarian argitaraturiko egile beraren “Aportaciones del vasco medieval a la reconstrucción del léxico protorromance”, biak ala biak 2020an argitaratuak eta Euskaltzaindiak bere-berea duen zabalkunde akademikorako ahaleginaren lekuko.

Azken boladan ikusi ahal izan dugunez, EHHE ari da, pixkana, bere bidea urratzen euskal gizaratean. Honen adibide dira uztail hasierako irratzaioak eta prentsako zein telebistako aipuak (besteren artean, *El Correo*

egunkarian eginiko erreportajea, 2019ko abuztuaren 31ko alean argitaratua); baita, orobat, aldian-aldian egoitzara iristen diren informazio eskaerak, hitz honen edo haren etimologiaz edo euskarak erdaretan izandako eraginaz galdezka. Espero dezagun etorkizunean ere harrera ona izaten segitzea egitasmoak gure gizartean, horixe baita egileon eta Euskaltzaindiaren helburu behinenetako bat.

Horretan lagunduko du EHHE-200en 2. edizioak, sarekoa izango baita. 2021eko maiatzean sareratzear dago, Aitor Maritxalarren eskutik. Funtsuan, paperean argitaratua bera bada ere, hainbat egokitzapen eta hobekuntza ere egin dira, gehienbat nabigazioa hobetzeko eta, bide batez, baita formari eta aurkezpenari dagozkion moldaketak egiteko ere. Besteak beste, Wartburgen, Corominesen eta Corominas-Pascualen hiztegiei egiten zaizkien erreferentziak ohikoak diren FEW, DECat eta DCECH laburdura-formatuaren bidez eman dira, eta, bereziki, Mitxelenaren lanei egindako aipu ugariak zehaztu eta bateratu dira, Koro Seguiolaren laguntzarekin, berriro ere. Edukiarekiko aldaketak ere, urriago baina badira, zenbait eztabaida etimologiko edo familia-kidetasun batzuri dagozkienak. Euskalari, gainerako hizkuntzalari nahiz zale orok aurkituko ahal du bertan egungo eguneko (ez atzoko edo iazko) lanabes eta laguntzarik.

Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa *Aurkezpen jardunaldia*

Helburuak: Hainbat espezialista entzutetsuk dioskunez, etimologia azterketa ez da hitza esparrutzat harturik hizkuntzaren barne-historia eraikitzeko diakroniaren alderdi ezberdinen analisiak konbinatzen dituen jarduna baizik.

Jardunaldi honen helburu nagusia EHHE Egitasmoaren eta, bereziki, EHHE-200 argitaratu berriaren -hots, bere izaera, helburu, metodo eta lorpen garrantzitsuenen gehi ondoko urteotarako asmoen-aurkezpen orokor bat egitea da.

Horrekin batera, alorrak inguruko eta urrutiagoko hizkuntza eta hizkuntza familietan diren zenbait aurrekari eta arestiagoko edo abian diren paralelo eta aitzinamendu eta hein batean eredutzat har ditzakegun zenbait kasu aurkeztu nahi ditugu, egitasmo eta alor horietako goi-mailako espezialista zenbaiten eskutik.

Non-noiz: Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2019ko uztailaren 4an.

Egitaraua

08:45-09:00 **Harrera eta material-banaketa.**

09:00-09:20 **Hasiera ekitaldia.**

- Bizkaiko Foru Aldundia.
- Bilboko Udala.
- Joseba Lakarra (euskaltzain osoa, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* egitasmoaren zuzendaria).
- Andres Urrutia (euskaltzainburua).

09:20-10:10 **Lehen hitzaldia.**

- Aurkezlea: Blanca Urgell (euskaltzain urgazlea, Euskal Herriko Unibertsitatea).
- Hizlaria: Jose Antonio Pascual (Real Academia Española, Universidad Carlos III). “*Saludos de un etimólogo hispánico al Nuevo Diccionario Histórico-Etimológico Vasco*”.
- Hitzaldiak (40’) eta elkarrizketarako tartea (10’).

- 10:10-11:00 **Bigarren hitzaldia.**
 – Aurkezlea: Julen Manterola (Euskaltzaindiaren *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* egitasmoa).
 – Hizlaria: Reina Bastardas (Universitat de Barcelona). “*El Dictionnaire étymologique roman (DÉRom): aportaciones de su metodología a la etimología idioromance: el caso del catalán. Y posibles aportaciones extraromances*”.
 – Hitzaldiak (40’) eta elkarrizketarako tartea (10’).
- 11:00-11:50 **Hirugarren hitzaldia.**
 – Aurkezlea: Blanca Urgell (euskaltzain urgazlea, Euskal Herriko Unibertsitatea).
 – Hizlaria: Joakin Gorrotxategi (euskaltzain urgazlea, Euskal Herriko Unibertsitatea). “*Etimologia, filologia indoeuroparra eta euskara*”.
 – Hitzaldiak (40’) eta elkarrizketarako tartea (10’).
- 11:50-12:10 **Atsedena / Kafea.**
- 12:10-13:00 **Laugarren hitzaldia.**
 – Aurkezlea/moderatzaila: Joakin Gorrotxategi (euskaltzain urgazlea, Euskal Herriko Unibertsitatea).
 – Hizlaria: Joseba Lakarra (euskaltzain osoa, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* egitasmoa). “*Euskal ikerketa diakronikoak eta EHHErantzko bidea*”.
 – Hitzaldiak (40’) eta elkarrizketarako tartea (10’).
- 13:00-13:50 **Bosgarren hitzaldia.**
 – Aurkezlea/moderatzaila: Joakin Gorrotxategi (euskaltzain urgazlea, Euskal Herriko Unibertsitatea).
 – Hizlariak: Joseba Lakarra, Iñaki Segurola eta Julen Manterola (*Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* egitasmoa). “*Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoaren aurkezpena*”.
 – Hitzaldiak (40’) eta elkarrizketarako tartea (10’).
- 13:50-14:00 **Ondorioen aurkezpena eta agurra.**
 – Joseba Lakarra (euskaltzain osoa, *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa* egitasmoaren zuzendaria).